 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 - 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 1

UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURA

EGUNA: 2025 - 12 - 18

ORDUA: 19:00

IZAERA: OHIKOA

LEHENDAKARIA:

REGINA SORARRAIN LASA andrea.


ZINEGOTZIAK:

- **EDURNE ARRAYET GARMENDIA** andrea.
- **ASIER EZEIZA IRAZUSTABARRENA** jauna.
- **ANDREA LARRAÑAGA CEBALLOS** andrea.
- **MARIA JESUS GAZTAÑAGA OTERMIN** andrea.
- **MAIALEN LANDART HERRERO** andrea.
- **MARIA PILAR PALOMARES PEREZ** andrea.

IDAZKARIA:

- **JON ZALDUENDO TELLERIA** jauna.

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 – 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 2

Alegian, udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, bi mila eta hogeitabosteko abenduaren hemezortzian, hemeretzi ordu direla, Udalaren Batzar Osoa biltzen da ohizko saioan, goian aipatzen diren zinegotziak partaide direla, Regina Sorarrain Lasa andrea alkatearen lehendakaritzapean.

Bertan aurkitzen da Jon Zalduendo Telleria, Udalaren Idazkaria, eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.

Dokumentuan erabiltzen diren akronimoak:
EH BILDU: Euskal Herria Bildu Udal talde Politikoa.
AA: Aurrera Alegia Udal Talde Politikoa.

AZTERGAIK

I.- UDAL JADUERAREN BERRI EMATEA.

I.- Alkatetzaren erabakien berri ematea.

II.- ERABAKIAK

I.- Aurreko aktak onartzea:

- 2025/11/26koa.

II.-2025 ekitaldiko dirulaguntzak banatzeko proposamena.

III.- 2026ko ekitaldiko udal aurrekontua. Eranskinak: Plantilla organikoa. Lanpostuen zerrenda. Onartzeko erabaki proposamena.

III.- MOZIO, ERREGU ETA GALDERAK


Alegia, 2025ko Abenduak 15

Alkateak

Alkatearen agindua betetzeko, honen bitartez, Udal Batzarraren Osoko bilkura egiteko deia luzatzen dizut, lehenengo deialdian goian esaten den toki, egun, ordu eta aztergai zerrendarekin.

Udal Idazkariak

ALEGIAKO UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 – 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 3

I.- UDAL JARDUERAREN BERRI EMATEA

I.- Alkatetzaren erabakien berri ematea.

Iraganeko 2025ko azaroaren 26eko Osoko Bilkura geroztik, alkatetzak hartutako erabakien zerrenda igorri da deialdiarekin batera, eta honenbestez berri ematen zaio Batzarrari, indarrean dagoen azaroaren 28an onartutako 2568/1986 Errege Dekretuak arautzen dituen Toki Erakundeetarako Eraketa, Jarduera eta Legebideko Araudiaren 42.atalean adierazten den ondorioetarako.

II.- ERABAKIAK

II.I.- AURREKO AKTAK ONARTZEA.

2025ko azaroaren 26eko bilkurako akta.

Bilkurako deialdiarekin batean, aktaren zirriborroa igorri zaie Zinegotziei.


Alkate-Lehendakariak, aktaren edukiari buruz norbaitek oharrik egin nahi duen galdetzen du; onartzea proposatuz.

Ez da oharpen eta aldaketa zehatzik egiteko eskatu, edo proposamenik egiten.

Aldaketarik inork ez du eskatzen, eta ondorioz, indarrean dagoen azaroaren 28an onartutako 2568/1986 Errege Dekretuak arautzen dituen Toki Erakundeetako Eraketa, Jarduera eta Legebideko Araudiaren 91.atalean araututakoaren arabera, **ontzat hartua jotzen da.**

II.II.- 2025 EKITALDIKO DIRULAGUNTZAK BANATZEKO PROPOSAMENA.

II.II.I.- Ekitaldiko dirulaguntzen eskariak aztertu eta banatzeko Batzordeek egindako, erabaki proposamen zehatza, aurretik Zinegotziei bidalia izan da.

 <p>Alegiako Udala Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 - 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 4

2025eko DIRULAGUNTZAK – PROPOSAMENA

1 481.01.231.00 2025 Laguntzak. Instituzioei - Gizarte		
Hirugarrena	IFK	Laguntza
GIZAKIA HELBURU - PROYECTO HOMBRE	G20093415	200,00
ODOL EMAILEEN ELKARTEA	G20040838	239,29
ORTZADAR	G75068874	200,00
ALEGIAKO HERRI ESKOLA Harremanak.	S4833001C	700,00
	BATURA	1.339,29

1 481.01.231.91 2025 Jubilatuen Elkarte		
Hirugarrena	IFK	Laguntza
JUBILATUEN ELKARTEA	G20133864	1.500,00


1 481.01.230.20 2025 Hirugarren mundua		
Hirugarrena	IFK	Laguntza
EUSKAL FONDOA	G48772487	2.000,00
MUKWANO-LAGUN, 2024ko proiektua	G75024703	1.000,00
TOLOSALDEA SAHAREKIN ELKARTEA , Oporrak Bakean	G20760799	1.900,00
	BATURA	4.900,00

1 480.01.231.00 2025 Gizarte Laguntzak Familiei		
Hirugarrena		Laguntza
Alegiako Herri eskola. Ikasle zaugarrien zerrenda.		3.146,85

1 480.01.335.00 2025 Euskara ikastaroak		
Hirugarrena	IFK	Laguntza
Euskara ikastaroa egiten duten herritarrei matrikularen %100, jasotako beste dirulaguntzak kenduta.		1.037,00

1 481.01.334.00 2025 Laguntzak instituzioei, kultura		
Hirugarrena	IFK	Laguntza
ALEGIAKO ARGAZKILARI TALDEA	G75156869	1.000,00
ITURRI ZAHAR GURASO ELKARTEA	G20187332	2.000,00
KALEBERAKO FESTAK – Aratz Irazustabarrena Garmendia	72538813X	1.000,00
SUTARRI DANTZA TALDEA ELKARTEA	G75168682	3.000,00
TXINTXARRI ABESBATZA K.E.	G20505798	2.500,00

ALEGIAKO UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 – 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 5

INTXURRE ANTZERKI TALDEA	G20048872	1.000,00
	BATURA	10.500,00

1 481.01.341.00 2025 Kirola		
Hirugarrena	IFK	Laguntza
Alegiako ELORRI-ALDAPA Saskibaloia Kluba	G75218628	3.613,00
ALEGIAKO HERRI ESKOLA	S4833001C	1.615,68
ALEGIAKO MENDI ASANBLADA	G75157636	1.000,00
INTXURRE FUTBOL ELKARTEA	G20048872	5.100,00
INTXURRE PILOTA ELKARTEA	G20048872	2.800,00
ITURRI ZAHAR GURASO ELKARTEA	G20187332	5.000,00
TXUPITXU KIROL KLUBA	G75256503	2.000,00
	BATURA	21.128,68

1 481.01.335.00 2025 Laguntzak Euskal Herri mailakoak		
Hirugarrena	IFK	Laguntza
GALTZAUNDI TOLOSALDEKO EUSKATZALEEN ELKARTEA	G20371456	1.500,00
HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARTEA	G75083238	1.500,00
TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, S.L.	B75085050	9.060,00
	BATURA	12.060,00


II.II.II.- Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.

Bozketa eta erabakiak:

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 1) Alde bozkatzen dute: EH-BILDU taldeko bi bozko, eta eta AA taldeko bost boto. Beraz, zazpi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.

Aldeko zazpi bozko, aurkako bozkarik gabe, beraz erabaki proposamena onartzen da.

 <p>Alegiako Udala Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 – 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 6

ERABAKIA: Bideratutako espedienteak eta jarraitutako prozedurak ontzat eman, eta 2025 ekitaldiko Udal diru-laguntzak banatzeko proposamena, proposatuak izan diren era berean onartzen dira.

II.III.- 2026KO EKITALDIKO UDAL AURREKONTUA. ERANSKINAK: PLANTILLA ORGANIKOA. LANPOSTUEN ZERRENDA. ONARTZEKO ERABAKI PROPOSAMENA.

II.III.I.- 2026 ekitaldiko aurrekontuaren proiektua, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan xedatutakoaren arabera osatutako dokumentazio osoa, eta atxikitzen zaizkion eranskinen dokumentazioa, aurretik Zinegotzietan bidalia izan da.

Bertan jasotzen da erabaki proposamenaren testu zehatza.

Lehenengoa: 2026ko ekitaldiko Udal Aurrekontuaren egitasmoa eta atxikitako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendari buruzko eranskinak, proposatuak izan diren era berean onartzea.

Bigarrena: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 14 eta 15 artikuluetan esaten diren tramiteekin jarraitu.

Hirugarrena: Jendaurrean erakusketan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-betiko onetsizat joko da, beste tramiterik gabe.


II.III.II.- Batzorde Txostenemaileak gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren erabaki proposamenarekin bat egin du.

II.III.III.- Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.

Bozketa eta erabakiak:

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 1) Alde bozkatzen dute: AA taldeko bost boto.
- 2) Abstentzioa: EH-BILDU taldeko bi bozko.
- 3) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 – 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 7

Aldeko bost boto, aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko erabateko gehiengoa osatzen dutela, **erabaki proposamena onartzen da aurkeztutako era berean**

ERABAKIAK:

Lehenengoa: 2026ko ekitaldiko Udal Aurrekontuaren egitasmoa eta atxikitako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendari buruzko eranskinak, proposatuak izan diren era berean onartzea.

Bigarrena: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 14 eta 15 artikuluetan esaten diren tramiteekin jarraitu.

Hirugarrena: Jendaurrean erakusketan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-betiko onetsizat joko da, beste tramiterik gabe.

Botoen azalpenak:


EH Bilduko Asier Ezeiza Irazustabarrena, zinegotziak, honako azalpenak egiten ditu, eta Idazkariari, idatzita ematen dio aktan jasotzeko. Honela dio hitzez-hitz:

“2026ko aurrekontuen bozketan abstenitzea izan da gure erabakia, izan ere, ez dugu ikusi gure baiezkoa emateko behar bezainbesteko oinarririk. Arrazoi zehatzen inguruan, bi azpimarratuko genituzke.

Bata, aurrekontuen negoziaketa eta edukiaren inguruko gure iritzia litzateke. Aurrekontu hauetarako egin genituen proposamenetatik mugikortasun planarekin eta bizikletak garbitzeko gunearekin lotutakoak soilik isladatzen dira, nahiz eta oraindik inork ez dugun plana bera eskuratu.

Bestea bertan dauden inbertsioen ezaugarri eta kopuruak zalantzak sortzen dizkigute. Adibidez eskolatik zubirantz egiteko proposatu dezuten espaloi berriak bere horretan, gure ustez, ez luke herritarrek identifikatu zuten puntu beltza ekidingo edota haur eskolako estalkiarekin gertatutakoa ikusita (aurrekontuan 80.000€ eta azkenean 35.000€ inguru), eskola sarrerako estalpeak 70.000€ko kostua edukitzea ere asko iruditzen zaigu.


Alkateak, hitzez hitz, hurrengoa erantzun eman zuen:

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 – 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 8

“Alde batetik, Asierrei erantzunez, ez degu jaso mugikortasun plana orandik, horregatik ezin izan degu aurrekontuetan jaso eta herriko komertzioari laguntzeko kaja batzuen instalazioen kasuan, egon gara aztertzen eta Alegiako kasuan ez dela bideragarria ondorioztatu dugu. Ondorioz, bai harritzen gaitu EH Bilduk abstenitzea erabakitzea, izan ere, gure borondatea bai izan dela zuen proposamenak bideratzea.

2025a bukatzeaz dugun honetan, eta legealdi erdia igarota, hau da gobernu taldearen hausnarketa:

- 2023ko udazkenean, eta Alkatetza hartu berri, aurreko legealditik zetorren Larraitzeko lanak hasteko konpromezua hartu genuen, 2024erako. Hitza betez, halaxe izan zen, urte horretako abuztuan hasi baitziren lanak, lizitazio prozesu baten ondoren. Udal talde berriak, hainbat ekarpen egin dizkio proiektuari, beti ere, 2022an herritarrek galdeketa bidez aukeratutako proiektua errespetatuz, nola ez. Ekarpenen artean, proiektua bera gure ustez hobetzen duten iradokizunak sartzeaz aparte, EREIN dirulaguntza, 300.000 eurokoa eta duela gutxi GFAk, Mugikortasun ataletik emandako 40.000 euroak ditugu aipagarri. Gaur, 2025a bukatzeaz, Larraitz Ekialdea eremu irisgarri eta segurua bihurtu da.*
- Larraitzeko lanez aparte, 2025a erronkaz betetako urtea izan da. Alde batetik, Alegia eta Alegiaren inguruko hamar herri eta bi auzoei eragiten dien proiektuaren ingurukoak genituen urte hasieran bete beharreko nagusi, Osasun Etxearen ingurukoak alegia. Hasieran, dirulaguntzekin aurrera eramatekoa bazen ere, lanketa luze baten ondoren, Osasun Sailarekin hitzarmen bat sinatzera heldu gara, modu honetan, Osakidetza bere gain hartu du osotasunean Osasun Etxearen kostua. Honekin, Jubilatuen Elkarte eraberritzeko GFAk emandako 100.000 euroak ere kontutan hartu behar dira.*
- 2025a zetorren bezela etorrita, gutxi izan balitz, ekainaren 13ko euriteek arrakala suposatu dute, herrian triskantza sortu zutelako. Honek aurrekontuan eragina izan du, hainbat lan egin gabe utzi dira egoerari aurre egiteko, 120/150.000 inguruko gastua izan du orain arte, inondik inora espero ez genituenak, konponketetan hasi gabe. Duela egun gutxi jakin dugu, ebazpena argitaratu da, 147.000 euroko dirulaguntza emango digutela, beraz, 2026an konponketekin hasteko moduan izango gara, pixkanaka hainbat egoera lehengoratu.*
- Legealdi honetako ekitaldiei atzera begiratu ezker, aurrekontuaren exekuzio maila oso altua da, %90a baino altuagoa, beraz, horrek adierazten du aurrekontuak ez direla orri sorta batean jarri ditugun zenbaki soilak, proiektu erreal eta egingarriak*

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 - 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 9

eramaten ari garela aurrera, beti ere zuhurtziaz jokatzuz, Udala zorpetu gabe, Alegitarren ongizatea dugula helburu.

Laburbilduz, gure tamainako herri batentzat, proiektu potoloak dira aurrera eramaten ari garenak, eta ez hori bakarrik, bai Kulturari, Aisialdiari eta era batera edo bestera herriaren dinamika berriak sortzen saiatzen ari gara, egunerokotasunean herri bizi eta erakargarri bat sortzeko helburuz.


Eskarrikasko nere aldeari, ez zarete makalak, zuen indarra eta ilusioari esker hainbat ekimen ateratzen dira aurrera, herritarren gozagarri.

Udaleko langileak ere gogoan ditut, tekniko mailan, administratiboan, beraien eguneroko lanarik gabe, talde lanik gabe ezin izango genukeen aurrera egin. “

Dokumentuaren laburpen eranskina :

Sarrera eta gastuen kapitulukako bilduma:

SARRERAK		GASTUAK	
	€		€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK		A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	539.500,00	1. Kap. Pertsonal gastuak	801.301,44
2. Kap. Zeharkako Zergak	20.000,00	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitz.	1.211.507,71
3. Kap. Tasak eta bestelako sarrerak	375.538,61	3. Kap. Finantza gastuak	0,00
4. Kap. Transferentziak arruntak	1.959.985,60	4. Kap. Transferentzia arruntak	427.665,06
5. Kap. Ondare-sarrerak	15.150,00	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	90.000,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK		B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
Inbertsio errealak besterenganatetik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk		6. Kap. Inbertsio errealak	379.700,00
7. Kap. Kapital transferentziak	0,00	7. Kap. Kapital-transferentziak	0,00
8. Kap. Finantza aktiboak	0,00	8. Kap. Finantza aktiboak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	0,00	9. Kap. Finantza Pasiboak	0,00

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 - 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 10

2.910.174,21

2.910.174,21

LANGILEGO ERANSKINA


Uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoko legeak, eta Toki Jardunbideko Oinarriak arautzen dituen Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, arautzen duten Udal Plantillari buruzko eranskina:

2026rako PLANTILLA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK				
Lanpostuaren izena	Lanpostu kopurua	Taldea 7/2021 Legea 9 art.	Egoera	
Izaera nazionalako gaitzuntza eskala				
1	Idazkari-Kontuhartailea	1	A1	Bitartekoa
Administrazio orokorreko eskala				
Administrarien azpi-eskala				
2	Administraria. Arloko koordinatzailea (a)	1	C1	Jabetzan
3	Administraria. Udal administrazioa	1	C1	Hutsik
4	Administraria. Kultur arloko suspertzailea	1	C1	Jabetzan
5	Administraria. Udal administrazioa (b)	1	C1	Hutsik
6	Administraria. Udal administrazioa %50eko lan-saioa	1	C1	Hutsik
7	Administraria. Liburutegiko arduraduna %50eko lan-saioa	1	C1	Bitartekoa
Administrari laguntzaileen azpi-eskala				
8	Administrari laguntzailea (c)	1	C2	Jabetzan
Menpekoen azpi-eskala				
9	Atezain/Garbitzailea	1	LT	Jabetzan
Administrazio bereziko eskala				
Zerbitzu berezietako azpi-eskala				
Klasea: Zerbitzuetako pertsonala				
10	Arkitektoa (%40 lan-saioa).	1	A1	Hutsik
11	Mantenuko eta zerbitzuetako ofiziala. Arloko koordinatzailea.	1	C1	Jabetzan
12	ZAL – Zeregin anitzeko langilea.	1	LT	Jabetzan
13	ZAL. Zeregin anitzetako langilea	1	LT	Bitartekoa


PERTSONAL LABORALARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 – 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 11

	Izena	Lanpostu Kopurua	Asimilazio taldea	Egoera
14	Gizarte Laguntzailea (%70 lan-saioa)	1	A ₂	Finkoa
15	Administrari Laguntzailea (%70 lan-saioa).	1	C ₂	Finkoa


- (a) Desagertzekoa, titularraren jubilazioagatik.
- (b) Barne promozio bidez.
- (c) Desagertzekoa, barne promozio bidezkoa betetzen denean.

 Alegiako Udala Gipuzkoa	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 - 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 12

2026rako LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK																
Ord. zk.	Izena	Lanpostu Kopurua	Taldea	Hornitzeko era	Ordainketa osagarriak			Dedikazioa	Bulegoa	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak						
					Destino osakinaren maila	Udalhitz maila	Osagarri espezifikoa			Adskripzioa			Hizkuntz eskakizuna			exijitut. titulaz.
										Taldea Eskala	Azpieskala	Klasea	HE Id/ir	HE Min/ent	Aginduzko data	
1	Idazkari kontu-hartzailea	1	A1	L	26	22	25.175,40	%100	ID	HN	IK	3	4	4	1994/09/15	GRA.
2	Arkitektoa	1	A1	OL	24	19	9.335,57	%40	H	AB	TEK		4	4	2024/12/23	ARK. GRA.
3	Administraria. Koordinatzailea (A)	1	C1	OL	22	15	22.639,44	%100	ID	AO	A		3	3	2000/07/26	BATX
4	Administraria. Udal administrazioa	1	C1	OL	19	13	20.371,08	%100	ID	AO	A		3	3	2025/12/18	BATX
5	Administraria. Kultur Dinamizatzailea	1	C1	OL	19	13,50	21.373,32	%100	KA	AO	A		3	3	2005/06/16	BATX
6	Administraria. Udal administrazioa	1	C1	BP	18	12	19.095,60	%100	ID	AO	A		3	3	2023/12/21	BATX
7	Administraria. Udal	1	C1	OL	17	10	8.922,48	%50	ID	AO	A		3	3	2023/12/21	BATX

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 Alegiako Udala Gipuzkoa	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 - 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 13


	administrazioa															
8	Liburutegiko arduraduna	1	C1	OL	17	10	8.922,48	%50	ID	AO	A		3	3	2023/12/21	BATX
9	Administrari Laguntzailea (B)	1	C2	OL	17	10	17.845,08	%100	ID	AO	AL		2	2	1992/12/31	ESO
10	Atezain/garbitzailea	1	LT	OL	11	06	14.476,44	%100	KA	AO	M		2	2	2005-06-16	EZ
11	ZAL Ofiziala. Koordinatzailea	1	C1	OL	18	12	19.095,60	%100	OB	AB	ZB		3	3	2014/02/24	LH-B-A1
12	ZAL. Zeregin anitzeko langilea	1	LT	OL	13	08	16.877,40	%100	OB	AB	ZB		2	2	1992-12-31	B-A1
13	ZAL. Zeregin anitzeko langilea	1	LT	OL	11	06	14.476,44	%100	OB	AB	ZB		2	2	2001-05-30	B-A1

(A) DESAGERTZEKOA. TITULARRAREN JUBILAZIOAGATIK.


(B) DESAGERTZEKOA. 6 ORDEN ZENBAKIA DUEN LANPOSTUA BETETZEN DENEAN.

PERTSONAL LABORALA																
Ord. zk.	Izena	Lanpostu Kopurua	Taldea	Hornitzeko era	Kategoria Profesionala	Udalhitz maila	Asimilazio Maila Osagarri espezifikoa	Dedikazioa	Bulegoa	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak						
										Adkripzioa			Hizkuntz eskakizuna			Exijitut. titulaz.
										Taldea Eskala	Azpies kala	Klasea	HE Id/ir	HE Min/ent	Aginduzko Data	

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 - 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 14

1	Gizarte Laguntzailea	1	A2	OL	20	14	12.814,68	%70	GZ	AB	ET		3	3	1996-05-01	GRA.
2	Administrari Laguntzailea	1	C2	OL	15	09	11.842,32	%70	GZ	AB	LG		3	3	1996-05-01	ESO

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 12 - 18
	IZENA: 20251218ba.akt	ONARTZE DATA:	2026 - 01 - 28
		ORRIALDEA:	15 (e)tik 15

III.- MOZIO, ERREGU ETA GALDERAK.

III.I.- MOZIOAK:

Ez daude.

II.- ERREGUAK:

Ez da egiten.

III.- GALDERAK:

Ez da egiten.

Eta besterik gabe, arratsaldeko zazpiak eta berrogei minutu direla, Alkateak amaitutzat ematen du bilera.

Ontzat Eman
Alkate-Lehendakariak

Idazkariak

